

ARIKETAK

1 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

- a) Ikastarora, zazpi joan ziren: Pello, Itziar eta Aintzane oso pozik itzuli ziren **hiruak**; beste **lauak**, ordea, erabat aspertuta.
b) Ikastarora, zazpi joan ziren: Pello, Itziar eta Aintzane oso pozik itzuli ziren **hirurak**; beste **laurak**, ordea, erabat aspertuta.
- a) Idazki hori zuzendu egin behar duzu, ez dituzulako zenbakiak neurri berean idatzi: **lauak** txikiagoak dira **hiruak** baino.
b) Idazki hori zuzendu egin behar duzu, ez dituzulako zenbakiak neurri berean idatzi: **laurak** txikiagoak dira **hirurak** baino.
- a) Epea amaitzen ari denez, **lehenbailehen** amaitu behar dugu lana.
b) Epea amaitzen ari denez, **lehenbailehen** amaitu behar dugu lana.
c) Epea amaitzen ari denez, **lehen-bait-lehen** amaitu behar dugu lana.
- a) Txikitán ez zuen liburu bat ere irakurri nahi eta hortxe duzu orain: herriko **bibliotekaria** da bera.
b) Txikitán ez zuen liburu bat ere irakurri nahi eta hortxe duzu orain: herriko **liburuzaina** da bera.
- a) Lanpostu hau eskuratzeko, **lizentziatua** izan behar da.
b) Lanpostu hau eskuratzeko, **lizentziaduna** izan behar da.
- a) Horretan ez dut ez **minutorik** ez **segundorik** galduko.
b) Horretan ez dut ez **minutorik** ez **segundorik** galduko.
c) Horretan ez dut ez **minutorik** ez **segundorik** galduko.
d) Horretan ez dut ez **minutorik** ez **segundorik** galduko.
- a) Europako 12 estatutan gauzatu da **moneta-batasuna** aurten.
b) Europako 12 estatutan gauzatu da **diru-batasuna** aurten.
- a) Frantziako **moneta** libera zen.
b) Frantziako **dirua** libera zen.
c) Frantziako **dibisa** libera zen.
- a) Autoari **motorea** hondatu zaio.
b) Autoari **motorra** hondatu zaio.
- a) **Nahitanahiez** onartu beharko dituzu gure baldintzak.
b) **Nahi eta nahi ez** onartu beharko dituzu gure baldintzak.
c) **Nahitaez** onartu beharko dituzu gure baldintzak.

2 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

- Sindikatuak ez daude ados gobernuak ezarritako **zerbitzu minimoekin**.

- Ez dakit **ministrari** berririk izango den Lan **Ministraritzan**.

- Duela bost urte etorri zen eta geroztik zuzendari **moduan** dihardu.

ARIKETAK

4. Telefonoz ari ginela, bat-batean haserretu eta **moztu** egin zuen deia.

5. Ez gara heldu lanera, elurtea dela eta, bidea **moztu** dutelako.

6. Ez baduzu ordaintzen, **moztu** egingo dizute argi-indarra.

7. **Sorginez mozorrotuta** joango gara akelarerra.

8. Gure ikastaroan zenbat ikasle ibili diren esatera **mugatuko** naiz.

9. Lehen irakaslea nintzen baina orain musikan **murgilduta** nabil.

10. Zenbat **neurtzen** du zutabe horrek? Hiru metro **neurtzen ditu**.

3 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, "TEAREN ORDUA" ARTIKULUKO AHOLKUEN ARABERA

1. Lehenengo azterketa **egitearen ondoren** atsedenaldi bat izango dute azterketariek.

2. Eskainitakoa onartu egingo dugu, baina kotizatzeke denbora **gutxitzearen baldintzarekin**.

3. Pertsonekin lan **egitearen ondorioz**, estresa da irakasleen arazo nagusietako bat.

4. Etengabe salbuespenak **egitearen bitartez** lortu dute nahi zuten hautagaia hautatzea.

5. Komunikabide ofizialek isiltzen zutena **zabaltzearen helburuarekin** sortu ziren tokian tokiko irrati libreak.

6. Taldea **desegitearen arrazoia** kideen arteko ezinikusietan datza.

7. Behin eta berriro **saiatzearen ondorioa** da arrakasta.

4 HIZTEGI BATUAREN ITZULERA

Euskaltzaindia hasia da Hiztegi Batuaren bigarren orrazketa egiten. Hona hemen sarrera berrien gaineko hainbat ariketa:

1. a) Aldizkaria interesgarria iruditzen zaidalako **abonatu naiz**.
b) Aldizkaria interesgarria iruditzen zaidalako **egin dut harpidetza**.
2. a) Nire baratzean ez dut **abonu** kimikorik erabiltzen.
b) Nire baratzean ez dut **ongarri** kimikorik erabiltzen.
3. a) Kontzertu guztietara joatekotan, merkeagoa da **abonua**, sarrerak baino.
b) Kontzertu guztietara joatekotan, merkeagoa da **abonamendua**, sarrerak baino.
4. a) Lankide berria izan arren, berehala **adaptatu** da hemengo girora.
b) Lankide berria izan arren, berehala **egokitu** da hemengo girora.
c) Lankide berria izan arren, berehala **moldatu** da hemengo girora.
5. a) Udan eguraldi ona izango genuela? Hori bai **adar jotze** galanta!
b) Udan eguraldi ona izango genuela? Hori bai **adar-jotze** galanta!
c) Udan eguraldi ona izango genuela? Hori bai **adarjotze** galanta!
6. a) Eraikina **adierazgailuz** beteta zegoenez, ez zegoen galtzerik.
b) Eraikina **seinalez** beteta zegoenez, ez zegoen galtzerik.
7. a) Egileak **adieraztera eman** duenez, urte askotako lanaren emaitza da liburua.
b) Egileak **aditzera eman** duenez, urte askotako lanaren emaitza da liburua.
c) Egileak **jakitera eman** duenez, urte askotako lanaren emaitza da liburua.
8. a) Hemazortzi urtetik gorakoak **adindunak** dira.
b) Hemazortzi urtetik gorakoak **adinekoak** dira.
c) Hemazortzi urtetik gorakoak **adin nagusikoak** dira.
9. a) Hamazortzi urte baino gutxiago dutenak, berriz, **adin txikikoak** dira.
b) Hamazortzi urte baino gutxiago dutenak, berriz, **adingabeak** dira.
c) Hamazortzi urte baino gutxiago dutenak, berriz, **adingabeak** dira.
10. a) Edari honek ez du **aditiborik**.
b) Edari honek ez du **gehigarririk**.
11. a) Aurten neu naiz gure eraikineko **administradorea**.
b) Aurten neu naiz gure eraikineko **administraria**.
c) Aurten neu naiz gure eraikineko **administratzailea**.
12. a) Zerbitzu Orokorretan egiten dut lan eta **administradorea** naiz.
b) Zerbitzu Orokorretan egiten dut lan eta **administraria** naiz.
c) Zerbitzu Orokorretan egiten dut lan eta **administratzailea** naiz.
13. a) Gero eta gehiago **admiratzen** ditut idazle onak.
b) Gero eta gehiago **amiratzen** ditut idazle onak.
14. a) **Adoleszentzia** aspaldi utzi zuen arren, oraindik ere **adoleszentetzat** jotzen du bere burua.
b) **Nerabezaroa** aspaldi utzi zuen arren, oraindik ere **nerabetzat** jotzen du bere burua.
c) **Nerabetasuna** aspaldi utzi zuen arren, oraindik ere **gaztetoxzat** jotzen du bere burua.
15. a) Europar Batasunaren barruan, iraganeko kontuak dira **arantzelak**.
b) Europar Batasunaren barruan, iraganeko kontuak dira **aduana zergak**.
c) Europar Batasunaren barruan, iraganeko kontuak dira **muga zergak**.

SOLUZIOAK

1 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

Aukera bat edo bi zuzentzat ematen bada, besteak ez dira euskara batuan onartzen. Aldiz, aukera bat HOBESTEN bada, bestea ere onartzen da, baina maila apalago batean.

1. B
2. A
3. A
4. Hobe B
5. Hobe B
6. C
7. Hobe B
8. Hobe B eta C
9. B
10. B eta C

2 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. Sindikatuek ez daude ados gobernuek ezarritako **premiazko zerbitzuekin** / **behar-beharrezko zerbitzuekin**.
2. Ez dakit **ministro** berririk izango den Lan **Ministerioan**.
3. Duela bost urte etorri zen eta geroztik zuzendari dihardu.
4. Telefonoz ari ginela, bat-batean haserretu eta **eten** egin zuen deia.
5. Ez gara heldu lanera, elurtea dela eta, bidea **itxi** dutelako.
6. Ez baduzu ordaintzen, **kendu** egingo dizute argi-indarra.
7. **Sorgin mozorroan** / **Sorgin jantzita** / **Sorgin jantzian** / **Sorgin arropetan** joango gara akelarerra.
8. Gure ikastaroan zenbat ikasle ibili diren **bestarik** / **baino** ez dut esango.
9. Lehen irakaslea nintzen baina orain musikan **buru-belarri** / **bete-bete**an nabil.
10. Zer **neurri** du zutabe horrek? / Zein da zutabe horren **neurria**? Hiru metro **luze da** / Hiru metroko **luzera dauka**.

3 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, "TEAREN ORDUA" ARTIKULUKO AHOLKUEN ARABERA

1. Lehenengo **azterketaren ondoren** / azterketa **egin ondoren** / **egin ostean** / **egin eta gero**
2. Eskainitakoa onartu egingo dugu, baina kotizatzeke denbora **gutxitzekotan** / **gutxitzen bada**.
3. Pertsonekin lan **egiteagatik** / **egiten dutenez**, estresa da irakasleen arazo nagusietako bat.
4. Etengabe salbuespenak **eginez** / **eginda** / **eginik** lortu dute nahi zuten hautagaia hautatzea.
5. Komunikabide ofizialek isiltzen zutena **zabaltzearren** / **zabaltzeko (asmoz)** / **zabaldurik** sortu ziren tokian tokiko irrati libreak.
6. Taldea **desegiteko arrazoia** kideen arteko ezinikusietan datza.
7. Behin eta berriro **saiatuta** / **saiaturik** / **saiatuz** lortzen da arrakasta. / Behin eta berriro saiatzeak **dakar** arrakasta.

4 HIZTEGI BATUAREN ITZULERA

Aukera bat edo bi zuzentzat ematen bada, besteak ez dira euskara batuan onartzen. Aldiz, aukera bat HOBESTEN bada, bestea ere onartzen da, baina maila apalago batean.

1. B
2. B
3. B
4. B eta C
5. C
6. B
7. B
8. A eta C
9. C
10. B
11. C
12. B
13. B
14. Hobe B eta C
15. B eta C